

Ingurumen Buletina

- 1. Ingurumenaren Nazioarteko Eguna: "Alternatibak eraikiz"***
- 2. Zer izango da Alternatiben Herria?***
- 3. Foru Aldundiei proposamenak ingurumen arloan***
- 4. Alternatibak hemen eta han***
- 5. Errausketarik ez!!***

1. Ingurumenaren Nazioarteko Eguna:

“Alternatibak eraikiz”

Ingurumenaren nazioarteko Egunean, ELAko idazkari nagusiak, Adolfo Muñoz “Txikik” kapitalismoa eta klima aldaketaren inguruan hausnarketa bat plazaratu zuen, hainbat komunikabidetan agertu zena:

“Alternatibak eraikiz”

Kapitalismoak bere interesak inposatzen ditu. Politika oso ahul ikusten du, eta boterea metatzen jarraitzeko oztoporen bat aurrean jartzen bazaio, zalantzarik ez du egiten paretik kentzeko. Pobrezia, eskubiderik gabeko lana, arlo publikoaren merkantilizazioa negozio pribatua egiteko, kapitalaren desfiskalizazioa, besteak beste zerga-ihes eta -iruzurraren bitartez, klase-eta nazio-identitate kolektiboen suntsipena, klima-aldaketa... baita bizitza bera ere, gurea eta planetarena, bere biziraupena arriskuan jartzeraino. Kapitalismo honentzat, zeinak beste edozerren gainetik jartzen duen etekin pribatua pilatzea, horiek guztiak ahaztu beharreko ondorioak dira.

Naomi Kleinek klima aldaketaz dio ez direla *“isuriak gutxitzeko beharrezko erabakiak hartu, hauek kontrajarrita baitaude kapitalismo desarautuaren oinarriekin”*. *“Katastrofea ekiditeko egoera*

hobean jarriko gintuzketen ekintzek –jende gehienaren onerakoak liratekeenak– mehatxuak dira gutxiengoa den elite batentzat, zeinak gure ekonomia, gure prozesu politikoak eta komunikabide handi gehienak erabat kontrolpean dituen”. Naomi Kleinek arrazoia du; horregatik da are premia handiagoa lan eta militantzia alternatiboa.

Gobernuen osaera baldintzatzen duten hauteskondeetatik haratago, zenbait eztabaida propio alboratuta geratzen da. Inbertsio-funts handi bateko zuzendariak esan zuenez, *“ulertu beharra dago (...) moneta-batasunean agintariak beren inguruan gertatzen denaren behatzaile pribilegiatuak direla eta beren erabakitzeak aukera oso mugatua dela. Politika jakin batzuk ezinezkoak dira EB barnean”*. Latza da gero, politikaren eginkizuna horrela definitzea. Latza, baina benetakoa. ELAk berari eta bere moduan pentsatzen dutenei esan nahi die ez dugula onartzen neoliberalismoak inposatzen duen egitura instituzional bat, hautesleak figurante huts bihurtzen dituen egitura. Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko militanteontzat hau da eztabaida nagusia, eta “governabilitatea”ren agendak ez luke atzeratu beharko; hain zuzen, agintzeko aukera dutenak gero eta

baldintzatuago daude ezarritako mugak medio, hauek galarazi egiten baitute kapitalismoak bilatzen dituen politikei atzera eragitea. Zergatik saihesten da debate hau, baita ezkerren zati handi baten aldetik ere?

Guztion ezkutuan, EB eta AEB TTIP izeneko ituna ari dira negoziatzen, multinazionalen eta finantza-boterearen mesedetan desarautzea gero eta gehiago sakontzeko. Areago, nahi dute auzitegi pribatuek erabakitzea enpresen eta estatu mailako legeen arteko gatazkak. Gure gobernuak itun hari buruzko jendearen ezjakintasunaz baliatzen dira –agintariak landutako ezjakintasuna, esan beharra dago–, eta itsu-itsuan ematen diote babesa ezagutzen ez dutenari, bitartean eztabaida ukatzen dutelarik. Berdin jokatu zuten europar Itunarekin; lehengo lepotik burua.

Egia da ez dela erraza bizi dugun prozesuaren nondik norakoak garbi azaltzea. Patxada eta hausnarketa behar dira etsaia izan ez dadin bidea erabakitzen duena. Gure ustez, militantzia alternatiboak lan-agenda komun bat ahalbidetu behar du, erreferentzia argi batzuk ezarriko dituen; nork bere lan-esparrutik eta, noski, guztiok batera. Oinarrizkoa da erabakitzea

kapitalismoa bizitzaren eta bizimodu duinaren etsai komuna dela. Neoliberalismoak ezaxola ezarri nahi du; haatik, hainbat eremutan erreferentziak eztabaidatzeko eta alternatibak eraikitzeko unea da: natura, nekazaritza, finantzak, elikadura, ingurumena, energia, klima aldaketa, aisialdia, ekonomia, lan mundua, fiskalitatea, desberdintasunaren jazarpena, trantsizio ekologiko eta sozialari esker sortutako enplegu alternatiboak (“enplegu berde” deitutakoak)... Hau dena, egungo egoeran, ez da goitik etorriko, eta irtenbidea ezin da izan ezer ez egitea. Soilik klima aldaketaren negazionistek, planeta arriskuan jartzen duten CO2 isurien ardura nagusia duten enpresek ordainduta, ukatzen dute begibistakoa dena: negutegi efektuko gasen eraginez tenperatura igotzen ari dela, eta horren ondorioa katastrofeak direla. Berotze globalari buruzko datuek agerian uzten dute joera hau planetako bizitzarekin batera ezinekoa dela. Lurraren etorkizuna ezin da utzi errentagarritasun ekonomikoa besterik ikusten dutenen eskuetan, ezta menpeko lana eginez politikan haiek nahi dutena egiten dutenen esku ere.

Eztabaida hau ezin da mundu sindikaletik at utzi; ELAk behintzat hala uste

du. 2015ean hainbat hitzordu inportante daukagu, lan hau finkatzen lagungarri izan behar direnak, sindikatuaren barnean eta beste organizazio batzurekiko harremanean. Ekainaren 5ean Baionan Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak prestakuntza saio bat antolatu du. Hiriburu lapurtarrean izatea ez da badaezpadako aukera: han ospatu zen 2013ko urrian lehenengo ALTERNATIBA; 5ean bertatik abiatuko da Alternatiben Tourra, Europako hiri ugaritan zehar ibiliko dena, COP 21ari begira (Klima Aldaketari buruzko Mundu Konferentzia); hau urte amaieran Parisen izango da. Mobilizazio lana, goi-bilera honen garrantzia nabarmentzeko; aurreko saioek porrot egin zuten botere ekonomikoaren interesen alde egiten duten herrialdeen betoagatik.

Baionakoaz gainera, Euskal Herrian badira aurten beste hitzordu batzuk (Europako hainbat hiritan bezala): Ekainaren 5 eta 6an Donostian Alternatiben herrixka ospatu zen, eta urriaren 24an Bilbon Alternatiben Herria ospatuko da. Jardunaldi honetan praktika alternatiboen merkatua izango da, tokiko produktuak, artisautza, haurrentzako jolasak, tailerrak, eztabaidak eta jai giroa. ELAk dei egiten die bere militanteei ekitaldi hauetan parte har dezaten.

2. Zer izango da Alternatiben Herria?

Alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Horixe irudikatzeko asmoz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladak datorren 2015eko urriaren 24ean “Alternatiben Herria” ekimena abiatuko dugu. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikien erakuslehioa, Kartaren ardatz nagusiak jarraituz. Topagune komuna.

Ekimen honekin jarraipena emanen diogu BIZI mugimenduak, 2015eko abenduan Parisen klima aldaketari buruzko Goi Bilera dela eta, Alternatiben Herriak antolatzeko egindako deialdiari, *“sistema aldatu, ez klima”* lemapean.

Izan ere, badira gure artean alternatibak egungo eredu soziala gainditzen joateko. Hauetako asko gure esku daude; beste hainbeste, jorratzeko zain. Hauek guztiek aukera ematen digute Euskal Herri justu, solidario eta desiragarriagoa egiteko.

Zer egin nahi dugu? Zer proposatzen dizuegu denon artean egiteko?:

- Euskal Herrian zehar, nor bere herrian, auzoan, taldean,... aurrera eramaten ari garen alternatibak eta proiektuak erakutsi. Eta

erakustearekin batera, informazioa partekatu, elkar ezagutu, gure artean gogoeta egin eta eztabaidatu... Denon artean konplizitatea, aliantza, konfiantza,... behar eta nahi ditugu gure alternatiba ezberdinak sartzeko eta indartzeko. Horrela bakarrik aldatuko dira gauzak!

- Botereek ezintasunera eraman nahi gaituzte. Haiek behin eta berriz sinestarazi nahi digute bide bakarra dagoela, ez dagoela beste alternatibarik. Horren kontra matxinatu nahi dugu. Bestelako bide batzuk jorratzeko ideiak, proiektuak, intuizioak, gogoak,... baditugula erakutsi nahi dugu.

Hartara, heldu den urriaren 24an, Bilbon, Alternatiben Herria egingo dugu. Egunaren zehar, Bilboko erdigunea, herri txiki bat bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko dugu. Mobilizazio eraikitzailea, denontzako tokia eginez.

Gune bakoitzean, arlo bakoitzean martxan dauden alternatibak ezagutaraziko dira jarduera ezberdinen bitartez: hitzaldiak, mahai inguruak, azoka, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak,... Zuen ideien eta ekarpenen zain eta irrikitan gaude!

Orain arte eragile anitzekin eginiko Batzar Irekietan, honako guneak eta gune

bakoitzeko eduki nagusiak proposatu dira:

- **Natura** (energia, klima aldaketa, hondakinak, mugikortasuna, elikadura burujabetza, kontsumoa,...)

- **Ekonomia eredua** (finantzak, txanpona, ekonomia sozial eraldatzailea, aberastasunaren banaketa, enplegua,...)

- **Demokrazia, soberania eta parte hartzea** (eredu ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa erabakitzeko eskubidea, partehartze soziopolitikoak, partehartze prozesuak, herrien arteko elkartasuna...)

- **Bizitzaren iraunkortasuna** (zaintza, harremanak, gorputzak,...)

- **Aniztasuna** (jatorria, identitatea, sexua, eta funtzionalitatearen inguruko aniztasunaren kudeaketa, ...)

- **Ondare komuna** (euskal hizkuntza, hezkuntza, euskal kultura)

Noski, egunak festa kutsua izan dezan kale animazioa, jan-edanerako gunea, musika,... ez dira faltako. Eraldaketaren bidean, denon lana beharrezkoa izango da Alternatiben Herria antolatzen eta baita alternatibak eraikitzen jarraitzeko. Denon artean, Euskal Herri bizia eraikitzen jarraitzeko.

3. Foru Aldundiei proposamenak **ingurumen arloan**

Azken Foru eta Udal hauteskunde kanpainaren atarian, Foru Aldundietara eta Nafarroako Gobernura aurkezten ziren alderdi politiko ezberdinei eginiko bere proposamena publiko egin ditu ELAk. Ezinbestekoa da ekintza politikoan gai sozialak lehenestea, eta honek aplikatzen ari diren politikak zeharo aldatzea eskatzen du. Ez gara inoiz ahazten ingurumenari loturiko gaiez, eta horregatik arlo honetan ere proposamenak egin ditugu. Azpiegitura, lurralde-politika eta ingurumenari dagokienez egungo egoera jasangaitza da, ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik. Iraunkortasun sozial eta ingurumenekoa iristeko erabakiak hartu behar dira:

- Garraio publikoa hobetu, hartara biztanleria guztiak (hiri handietakoak eta baita gainontzekoak ere), kalitatezko eta modu oneko zerbitzua izan dezan; alegia, bera izan dadin alternatibarik egokiena.
- Garraio publikoan tarifa sozialak aplikatu: 16 urte bitartekoentzat doakoa, txartel familiarak, langabeentzako bono sozialak, etab.
- Dauden errepideak hobetu, berririk egin

gabe, eta mobilitatearekin lotutako beste politika batzuk

garatu, lurzoru gehiago okupatzea azken aukera izan dadin.

- Errepideetako ordainsariak ezabatu.
- Hondakinen jatorriko bilketa selektiboan eta birziklapenean %80ra iristeko konpromisoa. Lurralde guztira hondakinen jatorriko bilketa selektiboaren eredia hedatzea; honek dagoeneko %80tik gorako birziklapen tasak ematen ditu. Jatorriko bilketa selektiboa konbinatu konpostajearekin, balorizazio materialarekin eta ezabapen iraunkorarekin.
- Balorizazio energetikoa eta errauste-plantak behin betiko baztertu. Orain baliatzen ez diren materialak birziklatzeko proiektuak bultzatu, horrela birziklapen tasa gehitzeko.
- Lurraldean frackinga eragotzi.

Enpleguaren sorreran esanguratsuak izan behar dute hurrengo urteetan “enplegu berdeak” deritzotenak. Ingurumenaren zaintza, ingurune degradatuen berreskurapena edo ekoizpen ereduaren aldaketa bezalako onurak dakartzate. Enplegu iraunkorrak eta beharrezkoak dira. Hauen sorreran aldundiek badituzte eskumenak:

- Energia: Udalek energia trantsizioa egiteko laguntzak eman: udaletako eraikinetan

energia berriztagarria kontsumitzeko eta energia berriztagarria sortzeko azpiegitura txikiak egin ahal izateko (biomasa bidezko berogailu sistemak, udal eraikinetako teilatuetan plaka fotoboltaikoak,...)

- Garraioa: industrialdeetan mugikortasun iraunkorrerako planak egin, garraio publiko sarea populazio gune bakartuetara hedatu, garraio publiko sarearen integrazioa, autoa partekatzearen sustapena, eta Aldundien menpe dauden garraioetako ibilgailuen elektrifikazioa azkartu.

- Hondakinak: Hondakinak murrizteaz gain, lanpostuen sorrera dakar kudeaketa iraunkor batek: hondakinen gaikako bilketa areagotu eta berrerabilerarako sarea eta ekipamendua sortu, objektuen jasotzea, konponketa, bigarren eskuko merkaturatzea eta trukeari loturiko zerbitzuak garatzeko.

- Basozaintza iraunkorra: Balio erantsi handiagoko espezieen landaketak lagundu eta energia berriztagarria sortzeko biomasaren ekoizpen iraunkorra bultzatu.

- Agroekologia: Aldundien menpe dauden jantokietan elikadura agroekologikoa eskaini (aterpetxeak, zaharren egoitzak, eguneko zentruak, ...).

4. Alternatibak hemen eta han

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren ekitaldia izan zen Baionan Ingurumenaren Nazioarteko egunean eta Iparraldeko eta Hegoaldeko Alternatiben Herriak aurkezteaz gain Maxime Combes entzuteko parada izan genuen.

Justizia klimatikoaren aldeko militantea da Maxim Combes eta "COP21az zer itxaron eta COP21a arte zer egin: erronkak eta perspektibak" izan zen bere hitzaldiaren izenburua. Klimak nazioarteko itunetan izan duen presentzia aipatu zuen, 2009ko Copenhageko goibiler aipatuta. Gaur egun, orduan ez bezala, inork ez du zalantzan jartzen aldaketa klimatikoa gizakien jardueraren ondorio dela. Goibiler hau porrot moduan definitu zuen eta azken bospasei urteetan porrot honetatik eratorritako eztabaidek hartu dutela lekua. Klima aldaketaren gaian funtsezkoa da estatuen konpromiso politikoa. Hala ere, kontuan hartu beharrekoa dela zaila izango dela estatuei eginbeharrak zehaztuko dizkien akordiorik lortzea. Gas isuriak berehala eta drastikoki mugatu beharra dagoela aipatu zuen. Copenhage 2009ren ondoren, 100.000 milioi euro agindu ziren aldaketa klimatikoari aurre egiteko. Egun, kopuru horren %10a ere

ez da martxan jarri. Irailean, mundu mailako liderrei gai honetan ekiteko deia egingo dute hainbat ingurumen-eragilek. 1999an, Seattlen, Merkataritzaren Munduko Erakundea blokatzea lortu zen, altermundialismoaren sorrera eta indartzea eman zelarik. Combesen hitzetan “Paris 2015 klimaren Seattle bat bihurtu beharko genuke”. Gizarte mugimenduak indartzearen garrantzia aipatu zuen, defentsibatik ofentsibara pasatuz.

Aldaketa klimatikoaren aldeko borrokak sistema aldatzea suposatzen du. Sistema aldatzeko, aliantzak saretu behar dira sektore desberdinen artean. Honekin lotuta, bi motatako prozesuak bereizi zituen. Batetik, Blokadia. Borroka lokalak energia fosilen bilaketa eragozteko, proiektu txikitzaileen kontra... Bestetik, Alternatiba.

Tokian tokiko alternatiba indibidual eta kolektiboen lanketa, utopia gaurdanik eraikiz, saretzuz... Justiziaren aldeko mugimendua da eta borroka hauetan sindikalismoa funtsezko eragilea da. Beste gizarte eragileekin batera, Parisko COP21en negoziazioetan ikusle izatetik eragile edo aktore izatera igaro beharko dugu.

5. Errausketarik ez!!

Gipuzkoan eraiki nahi zen erraustegiari aurre egiteko askotan idatzi genuen lelo hau. Azken urteetan alde batera utzita genuen, baina badirudi berriro ere lelo honek indarra hartuko duela zoritxarrez. Hemen ikusi dezakezue errausketari aurre egiteko azken ekintza ikusgarri baten [bideoa](#).